



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/03

Batzar Nagusiek Eskola Kiroleko arduradun teknikoen prestakuntzea hobetzeko eskatu deusie Aldundiari

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura batzordeak gaur erabagi dauenez, Aldundiak “Kirol Teknikarien Prestakuntzarako proiektu pilotua” gauzatuko dau. Proiektu hori gauzatzeko hizkuntzea euskerea izango da, eta helburua hezkuntza-kidetasuna eta generoen arteko bardintasuna indartzea izango da.

EH Bilduk planteau dauen arauz besteko proposamenak, Aldundiaren, Kiroleneren (kirol irakaskuntzen ikastetxe publiko bakarra) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babespean Eskola Kiroleko etorkizuneko begiraleak eta entrenatzaileak kirolaren irakaskuntzari aurre egin ahal izateko trebeziak eskuratzen lan egiteko eskaria egiten dau, Bizkaiko gizarteak hezkuntza arloko kirolaren aurrean dituan eskakizunak kontuan izanda, hau da, “euskerea, eta desbardina dan pertsona eta ingurumena errespetetea, beste batzuen artean”

Ekimenak Bizkaiko Batzarretako talde guztien aldeko eretxia jaso dau, abstenidu egin dan PPreua izan ezik, talde horren ustez neurriak ez dauelako kontuan hartzen Euskadiko Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizial bi dagozanik.

Txusa Padrones koalizino abertzaleko batzordekideak azaldu dauenez, idea, gure lurraldean eskola kirola egiten daben “40.000 ume baino gehiagoren” arduradun diran pertsonak gaur egun jasoten daben prestakuntzaren alderdi bi “indartzea” da, hau da, “hezkuntza-kidetasuna eta generoen arteko bardintasuna”, eta baita euskerearen erabilera be, 7 eta 16 urte arteko ume eta gazte gehienek B eta D ereduatan ikasten dabela kontuan izanda. Padronesen eretxiz, gaur egungo prestakuntzeak gai bi horreek “alde batera izten ditu”.

EH Bilduren ustez, Eskola Kirola programeak pausu garrantzitsua emon daike eta emon behar dau arlo bi horreetan, “hezkuntza-kidetasunean eta euskerearen erabilera normalizauaren bultzadan”. Horretarako, “behar-beharrezkoa” da kirolari gazteen irakaskuntzaz arduratzen diran arduradun teknikoen (entrenatzaileen eta arduradunen) prestakuntzea hobetzea.

OLLARGAN BASERRIAREN BABESA

Horrez gain, Bizkaiko Batzarrek, Talde Mistoaren ekimena kontuan izanda, Aldundiak Atxondoko Arrazola auzoko Ollargan baserria ondasun kulturaltzat sailkatzeko espedientea abiarazotea eskatuko dabe, holan 1519an eregi zan eraikin baten babesari hasieraa emoteko. Kontuan izan behar da “Bizkaiko eraikin zaharrenetakoa dala”. Arturo Aldecoaren eretxiz, bostehun urte bete behar dituan baserri batek legez babestuta egotea “merezi dau”, baten batek barriztetako beharren bat egin eta “daukan balio guztia pikutara bialdu” aurretik.

Ekimenak Batzarretako talde guztien aho bateko aldeko eretxia jaso dau. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek eraikinak babeserako prozesua abian jarteko “beharrezkoa dan ondare balioa” daukala esan dabe. Prozesu horri martxan jartea “seguruagoa” dala autortu arren, eraikina lehendik be babestuta dagola esan dau EH Bilduk, Atxondoko arau subsidiarioetan sartuta dagolako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

FINAGAKO BASELEIZEA ETA NEKROPOLIA

Modu berean, Batzarretako talde guztiak Talde Mistoaren beste ekimen baten alde agertu dira, aho batez, Finagako baseleizea eta nekropolia eta Malmasingo erromatarren aurreko kastroa balioan jarteko proiektua landu daiten.

Adostutako arauz besteko proposamenean oinarrituta, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Basauriko eta Arrigorriagako Udalakaz adostuta, “legealdi honetan, ondare moltso hori balioan jarriko dauen eta hobeto ezagutzeko aukerea bultzatuko dauen kultur hedapenerako eta kultur ibilpide bat egiteko proiektua egituratzeko” eskatu deusie Foru Aldundiari.

Arturo Aldecoa batzordekideak adierazo dauenez, Finaga-Malmasin inguruneak Bizkaiko kultur moltso “enblematikoenetakoa eta ezezagunenetakoa” jasoten dau. Kilometro karratu gitxi batzuetan, Malmasin mendiaren hegaletan, aztarnategi arkeologiko handi bi dagoz: Malmasingo erromatarren aurreko kastroa edo herrixkea, Arrigorriagako udalerrian; eta Finagako San Martin Kultur Moltsoa, Basaurin.

Mikel Bagan jeltzaleak esan dauenez, Aldundiak aztarna horreen barri emon eban 1994an, lehenengo azterketa arkeologikoak hasi ebazanean. EAJ-PNVko batzordekideak esan dauenez, Foru Aldundia hiru arlotan dabil beharrean iraganeko aztarna horreen gainean: jarduketa arkeologikoakaz jarraitu; ondare hori ezagutuarazo, jagokozan seinaleak jarritz; eta gune horreen kudeaketarako akordioak lortu aitaturako udal biakaz.

GUGGENHEIMEKO HEZITZAILEEN KONTRATAZINOA

Beste alde batetik, EH Bilduk eta Talde Mistoak Lorea Bilbao Euskera eta Kultura diputatu andrearen agerraldia eskatu dabe, Manpower enpresako beharginek Guggenheim Museoan bizi daben laneko gatazkaren barri emon daian Bizkaiko Batzar Nagusietako taldeen aurrean.

Koalizino abertzaleak salatu dauenez, Bilboko museoan hezkuntzagaz erlazonauta beharrean ibili diran enpresako 18 beharginak “kaleratu egin ditue”, Meritzel Elgezabalen berbetan, euren lan baldintza “lotsagarriak” salatzeagaitik. EH Bilduko batzordekideak esan dauenez, penagarria da Museoak hiru behargin zuzenean kontratetea erabagitea, kaleratutako beharginak ordezkatzeko.

Diputatu andreak azaldu dauenez, enpreseagaz sinatuta egoan kontratua joan dan irailaren 30ean amaitu zan, lizitazino publikoaren barruan aurreikusita egoan moduan. Zerbitzua eskintzen ibili dan denporan Manpower enpresek bere eginbehar guztiak egin dituala gogoratu ostean, Lorea Bilbaok esan dau Guggenheim museoak hiru pertsona kontratetako hartu eban erabagiak, abuztuaren bukaeran jakinarazotakoak, ez dauela esan gura pertsona horreek esleipena eukan enpresako beharginek egiten eben beharra ordeztu behar dabenik, 18 hezitzaileen eta orientatzaileen batez besteko jardunaldia “%17koa” zalako. Bere eretziz, egin dana “orduak parekatzea” izan da, kontratu “egonkorrak”, ordainketa “egokiak” dituenak, eginez.

Bilbaok esan dauenez, kontratazinoa beharginen aukeraketan espezializauta dagon kanpoko enpresa baten bitartez egingo da. Hiru hizkuntza (gaztelania, euskerea eta ingelesa) menderatzen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

dituen pertsonak bilauko dira. Diputatuak adierazo dauenez, museoaren gaur egungo lan poltsea kontuan izango da.

ZUGAZTIETAKO ERAIKINA

Saio berean, Talde Mistoaren beste agerraldi eskari bat gauzatu da, Aldundiko arduradunak, Arturo Aldecoa eskariaren sinatzailearen berbetan Kultur Intereseko Ondasun izentauta dagon Trapagaraneko Zugaztietako Magdalena 14 kaleko eraikinean “egindakoen eta hartutako neurrien” barri emon daian.

Bilbaok jakinarazo dauenez, eraikinaren jaubeak, epailearen ebazpenez “legez kanpoko” beharrak egiteagaitik ezarri jakon 4.000 euroko isuna ordaindu dau daborduko, eta orain hilebete hasita, legez kanpo egindako jarduketak botateko beharrak egiten dabiz. Diputatu andreak esan dauenez, Trapagako Udalagaz batera egin beharreko ikuskapen beharra egingo da, eraikina lehendik egoan moduan geratuko dala aseguretako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
03/10/2016

Las Juntas Generales instan a la Diputación a mejorar la formación del personal técnico del Deporte Escolar

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha acordado hoy que la Diputación desarrolle “un proyecto piloto de Formación de Técnicos y Técnicas deportivas”, que tenga como lengua vehicular el euskera, y que esté encaminado a reforzar e impulsar la coeducación y la igualdad entre géneros.

Bajo el paraguas de la Diputación, Kirolene (único centro público de enseñanzas deportivas) y la Consejería de Educación del Gobierno vasco, la proposición no de norma planteada por EH Bildu, demanda que se trabaje en la adquisición de competencias que permitan afrontar a los futuros monitores y entrenadores de Deporte Escolar la enseñanza del deporte y los requerimientos que tiene la sociedad vizcaína hacia el deporte educativo, como son “el euskera, el respeto al diferente y el medio ambiente, entre otros”.

La iniciativa ha contado con el apoyo de todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína, a excepción del PP que se ha abstenido por entender que la medida no tiene en cuenta el hecho de que en la Comunidad Autónoma Vasca existen dos idiomas oficiales.

La juntera de la coalición abertzale Txusa Padrones ha explicado que la idea es “reforzar” dos aspectos de la formación actual que reciben las personas responsables de los “más de 40.000 niños y niñas” que practican deporte escolar en el territorio como son la “coeducación y la igualdad entre géneros”, así como el fomento del uso del euskera teniendo en cuenta que la mayoría de chicas y chicos de edades comprendidas entre los 7 y los 16 años estudian en los modelos B y D. A juicio Padrones, la formación actual “deja de lado” estas dos cuestiones.

EH Bildu considera que el programa Deporte Escolar puede y debe dar un importante paso en estos dos sentidos, “el de la coeducación y el del impulso en el uso normalizado del euskera”. Para ello ven “imprescindible” mejorar la formación del personal técnico (entrenadores, entrenadoras y responsables) que se ocupa de la enseñanza de los jóvenes deportistas.

PROTECCIÓN DEL CASERÍO OLLARGAN

Asimismo, el Parlamento de Bizkaia ha pedido, a iniciativa del grupo Mixto, que la Diputación pida al Gobierno vasco la incoación de un expediente para declarar Bien de Interés Cultural el caserío Ollargan (Atxondo) para así iniciar la protección de un edificio que fue construido en 1519, lo que le convierte "en uno de los más antiguos de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaia". Arturo Aldecoa cree que un baserri que va a cumplir medio milenio de antigüedad “merece” que se proteja legalmente, antes de que alguien realice una obra de restauración y “se lo cargue”.

La iniciativa ha contado con el apoyo unánime de los grupos de la Cámara. Desde las filas de PNV y PSE-EE han constatado que el edificio tiene el “suficiente valor patrimonial” para que se inicie el proceso protector. Aunque la incoación es “más segura”, EH Bildu ha asegurado que el edificio está protegido por las inclusiones del mismo en las normas subsidiarias de Atxondo.

ERMITA Y NECRÓPOLIS DE FINAGA

De igual forma, los grupos junteros han coincidido en apoyar de forma unánime otra iniciativa del grupo Mixto para que se aborde un proyecto para poner en valor la ermita y necrópolis de Finaga y el castro prerromano de Malmasín.

En base a la proposición no de norma acordada, las Juntas Generales de Bizkaia solicitan a la Diputación Foral que, de acuerdo con los Ayuntamientos de Basauri y Arrigorriaga, “articule durante esta legislatura un proyecto de difusión cultural y una ruta cultural” que ponga en valor dicho conjunto patrimonial, e “impulse su conocimiento”.

Según el juntero Arturo Aldecoa, el entorno Finaga-Malmasín, guarda uno de los conjuntos culturales “más emblemáticos y desconocidos” de Bizkaia. En unos pocos kilómetros cuadrados, enclavados en las laderas del monte Malmasín, se pueden localizar dos grandes yacimientos arqueológicos: el castro o poblado prerromano de Malmasín, situado en Arrigorriaga; y el Conjunto Cultural de San Martín de Finaga, en Basauri.

Según ha mantenido el jeltzale Mikel Bagan, la Diputación ya advirtió de la importancia de estos restos cuando comenzó las primeras investigaciones arqueológicas en el año 1994. El apoderado del PNV ha dicho que la institución foral trabaja ya en relación a estos vestigios del pasado en tres frentes: seguir con las actuaciones arqueológicas, realizar una difusión de este patrimonio a través de la correspondiente señalética, y llegar a acuerdos de gestión de estos espacios con los ayuntamientos implicados.

CONTRATACIÓN DE EDUCADORES EN EL GUGGENHEIM

Por otro lado, EH Bildu y el grupo Mixto habían solicitado la comparecencia de la diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, para que explicara a los grupos junteros la situación del conflicto laboral que trabajadores de la empresa Manpower han mantenido en verano con el Museo Guggenheim.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La coalición abertzale ha denunciado el “despido” de los 18 trabajadores de la empresa que hacían labores educativas en el centro cultural bilbaino “por denunciar” según Meritxel Elgezabal, sus “vergonzantes” condiciones laborales. La apoderada de EH Bildu ha lamentado que el museo haya decidido contratar directamente a tres educadores a tiempo completo para suplir a estos trabajadores.

La diputada ha explicado que el contrato con la empresa finalizó como estaba previsto el pasado 30 de septiembre en el marco de una licitación pública. Después de recordar que Manpower no ha cometido ningún incumplimiento en el tiempo de servicio, Lorea Bilbao ha manifestado que la decisión adoptada por el Guggenheim de contratar a tres personas, comunicada a finales de agosto, no significa que éstas vayan a sustituir el trabajo que realizaban las empleadas de la adjudicataria ya que la jornada media de los 18 educadores y orientadores era del “17%”. Se trata, según ella, de una “equiparación horaria” trasladado a unos contratos “estables” y con retribuciones “adecuadas”.

Bilbao ha informado que la contratación se realizará a través de una empresa externa especializada en selección de personal, que buscará personas con manejo de tres idiomas (castellano, euskera e inglés). La diputada ha asegurado que se tendrá en cuenta la actual bolsa de trabajo del museo.

EDIFICIO DE LA ARBOLEDA

En la misma sesión, se ha sustanciado también una petición de comparecencia del Grupo Mixto para que la responsable foral diese cuenta de las “medidas y actuaciones” adoptadas en el edificio Magdalena 14 de La Arboleda, que se encuentra en un área declarada Bien de Interés Cultural, según el firmante de la petición Arturo Aldecoa.

Bilbao ha informado que el propietario del edificio ha abonado ya la sanción de 4.000 euros que le fue impuesta por unas obras “ilegales” según el juez y que desde hace un mes se están acometiendo las labores de derribo de las actuaciones realizadas fuera de la legalidad. La diputada se ha comprometido a realizar la correspondiente labor de inspección junto al ayuntamiento de Trapagaran para comprobar que el edificio se restituye a su situación anterior.